


Langilearen ongizatea

Covidaren pandemiak bizitzari buruz gehiago hausnartzea eragin du. Ondorioz, lana eta denbora librearen orekatzeko ahalegina handiagoa da gaur egun, eta errazago uzten edo aldatzen du jendeak lana.



1- Lan giroa

Zein hitz lotuko zenituzke lanarekin? Hemen hiru dituzu. Eman gutxienez beste hiru eta osatu zerrenda.

1. Lanpostua, 2. Langilea, 3. Lan-baldintzak, 4., 5., 6.

Hurrengo ariketako testua irakurri ondoren, osatzen joango zara zerrenda hori, eta sekuentzian zehar hiztegi lagungarri gisa erabiltzeko aukera izango duzu.

*Oharra: Lan hitzarekin hitz elkartu ugari sortzen da. Idazkerari erreparatzen badiozu, ikusiko duzu batzuk marratxo idazten direla eta beste hitz batzuk fosilizatu eta elkartuta idazten direla. Ikus adibide batzuk: lan-baldintza, lan-hitza / lanpostu, langile...

Lana ez uzteko, lan-baldintzak garrantzitsuak izaten dira. Nola baloratzen dituzu honakoak? Zerrendatu garrantzi handienetik txikienera (1-7), eta konparatu taldean erantzunak. Bat zatozte?

Lantokiaren ezaugarriak (argitasuna, toki atsegina...)	
Ordutegia	
Lanpostuaren gertutasuna	
Egitekoa motibagarria izatea	
Soldata	
Lan-giroa	
Eskalan gora egiteko aukera	

2- Lana uzteaz

Irakurri testua eta lanarekin zerikusia duten hitzak edo egiturak azpimarratu. Osatu lehenengo jarduerako zure zerrenda.



LANA UZTEAZ

Covid-19aren pandemiak hainbat aldaketa eragin ditu. Horietako bat bizitzari buruzko hausnarketa sakonagoak egitea izan da eta, horren ondorioz, borondatez lana uztea edo lanez aldatzea.

Ameriketako Estatu Batuetan inoiz ez bezala igo da lanuzteen kopurua, eta Erresuma Batuan, batez ere Londresen, antzeko joera nabaritzen ari dira. Batzuek bizitza pertsonalaren eta lanaren arteko oreka hobea bilatzea dute helburu; beste batzuek bizimoduaz hausnartu nahi dute. Orokorrean, zoriontasuna, malgutasun handiagoa eta diru-sarrera handitzea dira lanuzteen edo lanez aldatzearen arrazoi nagusiak.

Nire gertukoak diren edo nirekin lan egin izan duten berrogeita hamar pertsona inguruk lanez aldatu dute edo aldatzeko asmoa dute. Lagun bat Londresetik 300 kilometrora dagoen kostaldeko herri txiki batera joan da bizitzera, bere pasioak diren itsasoaren eta surfaren inguruan haurrak hezitzera, eta aspalditik buruan izan duen negozio-idea bat garatzeko inspirazioaren bila. Astean bi egun ematen ditu Londresen. Bere lantaldearekin kolaboratzeko agenda egokitu egin du: bulegoan dagoenean lana egiteko modua aldatu du. Etxean dagoen hiru egunetan, berriz, telelana egiten du; hartara, iluntzetako nahitaezko itsasoko bainua zorrozki errespetatu dezake. Hori da bere oreka: bi egun hirian eta bost itsasoan. Dioenez, Airbnb eta hoteletako bezeroen profilak ere aldatuz doaz, hirira gau bat edo bi pasatzera joaten diren londrestar ohiak dira horietako asko.

Beste lagun batek sei hilabete hartu ditu pausaldi bat egin eta hausnartzeko, benetan zer egin nahi duen pentsatzeko. Haurra zenean Italian eman zituen urteetatik herdoilduta zeukan italiara berreskuratu nahi du.

Ikus-entzunezkoetan, bestalde, beste joera bat ikusten ari gara. Google, Facebook eta Twitterreko langileak, adibidez, ez dira oraindik bulegoetara itzuli. 2022ko udaberrira arte ez omen dira itzuliko. Telelana normalizatu egin da eta lana egiteko modu berriak ezarri dira. Egoera konplexua da eta ez dago denentzat balio duen soluzio bakarrik. Hibrido bezala etiketatu den lan egiteko modu berri horrek forma asko ditu.

Pandemia honek utzi digun aukeretako bat langilearen ongizatea ardura handiagoz eztabaidatzea bada, emaitza ez da txarra izango.

2021eko urriaren 9a. Garazi Goia.

Naiz.eus (Moldatua).

Hiztegi lagungarria:

Lanuzte: lana uztea

Malgutasun: zurruna ez dena (erdarazko flexibilidad).

Hartara: modu horretara

Zorrozki: zorrotz (erdarazko rigurosamente)

(Italiara) herdoilduta: kasu honetan erdi ahaztuta (erdarazko oxidado).

Langilearen ongizatea: langilearen egoera ona (erdarazko bienestar)

Hautatu erantzun egokia:**- Zein dira jendeak lana uzteko dituen hiru arrazoi nagusiak?**

- a) Zoriontasuna, diru-sarrera handiagoa eta lantaldean kolaboratu ahal izatea.
- b) Malgutasun handiagoa, diru-sarrera handitzea eta negozio-ideia bat garatzeko aukera edukitzea.
- c) Diru-sarrera handitzea, zoriontasuna eta malgutasun handiagoa.

- Ikus-entzunezkoetan telelana normalizatu egin da...

- a) izan ere, enpresera ez itzultzea da langilearen ongizaterako aukera bakarra.
- b) baina kontuan hartu behar da guztientzat balio duen formula bakarra proposatzea ez dela posible.
- c) baina 2022ko udaberrira arte langileak derrigortuta egon dira enpresan bertan lan egitera.

Binaka, erantzun galderei:

- Garazi Goiaren ustez, pandemiaren eragina positiboa izan da?
- Ados zaude Garazirekin?

3. Zenbat denbora ematen duzu lanean?

Erreparatu nabarmenduta dauden egiturei:

- Garaziren lagun batek **astean bi egun ematen ditu** Londresen.
- Bere lagun batek **Italian eman zituen urteetatik** ez du italiara praktikatu eta herdoilduta dauka.

Urteak, hilabeteak, minutuak... EMAN (nonbait edo zerbaitetan).

Denbora tarte bat + EMAN egitura erabiltzen da norbaitek denbora hori toki batean edo zerbait egiten erabili duela esateko.

*Orduak eman ditut lan hori egiten
Baionan eman zituen opor egun guztiak*



Izenik jarri gabe, idatzi paper batean zenbat denbora ematen duzun lanean edo ikasten, eta zertan ematen duzun denbora hortik kanpo. Taldeka, bakoitza nor den asmatu, erantzuna arrazoituz.

- Nik zortzi ordu ematen ditut egunero lanean. Denbora librean igeri egitera joaten naiz. Astean bitan ingelesa ikasten dut eta iluntzetan ordu pare bat ematen ditut telebistaren aurrean.

4. Telelana nori eman...

Langilearen ongizatean aurrerapauso bat izan daiteke telelana. Irakurri pertsona hauen egoera. Nori emango zenioke lehentasuna telelanean aritzeko? Zerrendatu bakoitzarentzat zeintzuk diren telelanean aritzearen alde onak eta adostu binaka arrazoiak emanez. Bat etorri zarete taldean?



Ander (informatikaria) 33 urte	Idoia (abokatu) 47 urte	Irati (itzultzailea) 28 urte
<p>Leitzan bizi da eta egunero joaten da Iruñera lanera. Hori dela eta ordubete ematen du errepidean. Arratsaldeko 5ak arte aritzen da lanean enpresa batean. Bere saileko arduraduna da, eta bi seme-alabaren aita.</p>	<p>Arrasaten bizi da bakarrik eta Gasteizko bulego batean egiten du lan. Bidean ordu t'erdi ematen du egunero joan-etorrian, eta lanean, aldiz, bost ordu. Arratsaldetan antzerki-tailer batean aritzen da.</p>	<p>Bilbon bizi da bikotekidearekin eta hiriko erdialdean egiten du lan Administrazioan. Egunero 50 minutu ematen ditu bidean, eta goiz eta arratsaldez egiten du lan. Astean hirutan gurasoak zaintzera joan behar du Laudiora.</p>


5. Telelana bai ala ez?

Irakurri lagun batek posta elektronikoz bidalitako mezua:

Kaixo, alpaldiko! Zer moduz?

Ni beti bezala nabil. Enpresa berean jarraitzen dut. Lan handia dugu, baina pozik nago. Orain, gainera, telelana egiteko aukera eskaini digute, eta horregatik idazten dizut. Ez dakit zer egin eta zuri galdetzea bururatu zait. Zu iaz ondo moldatu zinen telelanean? Badakizu niri jendearekin lan egitea gustatzen zaidala, baina egia da errepidean orduerdi bat ematen dudala egunero eta telelana oso erosoa dela. Esango didazu zure esperientzia nolakoa izan den...

Laster arte!



Idatzi mezua lagunari. Kontatu zuk telelanean izandako esperientzia nolakoa izan den. Aipatu bururatzen zaizkizun alde on eta txarrak eta eman zure ustez lagunduko dion aholkuren bat. (Gutxienez, 140 hitzeko mezua idatzi).

A series of horizontal dotted lines for writing a message.

ERANTZUNAK

1. Lan giroa

Lanarekin lotu daitezkeen hainbat hitz:

lanpostua, lan-hitzarmena, ordutegia, oporraldia, bulegoa, lan-baldintzak, hautagaia, arduraduna, langilea, talde-lana, ordu gehigarriak...

2. Lana uzteaz

- Testuan lanarekin lotzen diren hitz edo egiturak:

Lana uztea edo lanez aldatzea; lanuzteen kopurua; bizitza pertsonalaren eta lanaren arteko oreka; dirusarrera; negozio-ideia; lantaldearekin kolaboratu; bulego; telelana; bezero; lana egiteko modu berriak; langilearen ongizatea.

- 1C; 2B

- Garazik dio positiboa izan daitekeela pandemiak aukera ematen badu langilearen ongizateaz hausnartu eta eztabaidatzeko.